

## Goiegi Ibarra eta Zabaleta Berriko 127 etxebizitzaren zozketa egingo du Udalak

Otsailaren 24an zozketatuko dira etxebizitzak bi txandatan Manuel Lekuona kultur etxean

**G**oiegi Ibarra eta Zabaleta Berri eremuak Babes Ofizialeko 127 etxebizitza zozketatuko ditu Udalak, otsailaren 24ean.

Zozketan sartzen diren Goiegi Ibarreko 75 etxebizitzak eta Zabaleta Berriko 52ak, promozio pribatukoak dira, hau da, eraikuntza enpresek, NASIPA S.L. eta Zabaleta Berri S.L., Etxebidieren laguntzaz etxe horien zozketa eta kudeaketa egin beharko lukete. Baina Etxebidek Udalei aukera ematen die enpresekin hitzarmenak egin eta zozketa egiteko eskumena lor dezaten.

Hitzarmen hori asteartean sinatu zuten Lasarte-Oriako alkatea den Jesus Zaballosek eta NASIPAREN izenean Ignacio Luis Larrañagak eta Zabaleta Berriren izenean Jose Manuel Amantegui.

### Kupoak eta etxebizitzak

Honela, Udalak herriko Babes Publikoaren Etxebizitzi buruzko legezko araudia jarraituz egingo du zozketa.

Gauzak honela, alkateak azaldu zuenez, Goiegi Ibarreko lehengo zozketan sartu



Udalak Zabaleta Berri eta NASIPA enpresekin sinatutako hitzarmenari esker, 127 etxebizitza zozketatu ahaliko ditu.

ziren herritarrek izango dute aukera berriro ere.

Kupoei dagokienez, berdin jarraituko dute eta bakoitzari dagozkion etxebizitza kopurua hau da: lehengo kupoan, ezindu fisikoentzat 7 etxebizitza zozketatuko dira, 4 Goiegi Ibarrean eta 3 Zabaletan; 2. kupoan, familia ugarienean, 4 etxebizitza zozketatuko dira Goiegin.

3. kupoan 35 urte azpiko herritarrentzat 64 etxebizitza zozketatuko dira bi taldeetan berezikiak. Batetik 1 eta 2

kideko familientzat 53 etxebizitza izango dira, 31 Goiegin eta 22 Zabaletan; eta bestetik 3 edo 4 kidekoek 11 etxe izango dituzte, 7 Goiegin eta 4 zabaletan. "Agindu bezala gazteei aukera eman eta zozketako etxebizitzaren %50a haientzat da," aipatu zuen.

Azkenik 4. kupoan 52 etxe izango dira zozketatuak. Bat edo bi kideko familientzat 27 etxebizitza egongo dira, 15 Goiegin eta 12 Zabaletan eta 3 eta 4 kidekoentzat 25, 14 Goiegin eta 11 Zabaletan.

### Zozketa bakarra

Etxebizitza hauen zozketa otsailaren 24an egingo da eta bi txanda egongo dira, bata 11:00etan 35 urte azpiko 1 eta 2 kideko eskaerei zuzendua eta bestea, 12:00etan.

Hurrengo egunetan zozketari buruzko bandoak jarriko dira herrian. Era berean, eskaeraren egoera eta zenbakiak kontsultatu ahaliko dira internet bidez.

"Hala ere, etxeetara eskutitza bidaliko zaie eta hau gorde behar dute" aipatu

zuen alkateak. Izan ere, zoketara pertsona bakarra sartu ahaliko da eta eskutitz hori izango da sarrera.

Zozketaren sistema berdina izango da eta urriko zozketaren antzera onuradunen zerrendak jarriko dira kafetegian. Berrikuntza bertan etxebizitzaren zerrenda eskuragarri egongo dela da eta bakoitzak dagokion etxebizitzari buruzko informazioa izango duela.

Ostean, enpresek deituko diete onuradunei datuak eskatzeko eta hauek Etxebiderra bidaliko dituzte hauek baieztatzeko

Honetaz gain, alkateak jakin arazi zuen, "promozio pribatua denez, zozketako onuradunek etxebizitzaren jabetza osoa izango dute."

### Barkamena eskatu


Goiegi Ibarreko lehenengo promozioko etxeen zozketan "hilabete batean hurrengo zozketa egingo zela esan eta horregatik barkamena eskatu behar dut". Alkateak azaldu zuenez, Etxebidek etxebizitzaren prezioa ezarri behar zuen eta atzerapena horregatik dator. •



Lasarte-Oriako langabetuek beharpenak izango dituzte zerbitzuetan /3

### KIROLA /6

Buruntzaldea Igeriketa taldeko sei igerilari eta errelebo mistoa Kutxa Sariko finalerara



Eider Elizegi mendizalearekin bere liburu eta esperientziari buruz solasean /4-5



Zabaleta auzoa ■ LASARTE-ORIA ■ Tel.: 943 365029

# OTEGI

SAGARDOTEGIA  
SOLLAENEA BASERRIA

• Larunbata eta jai eguerditan irekita  
• Asteartetik larunbatera gauero irekita

Txotx garaia hasita!

**Neure kabuz**



**Etorkizuna**

Ez da ohikoa niregan. Gutxitan egin ohi dudana zerbait da, eta, akaso, egia da guztiok gehiagotan egin beharko genukeen ariketa bat dela. Etorkizunera begiratzearaz mintzo naiz, urte mordo bat barru non egongo garen eta zer egingo dugun pentsatzeaz; bizitzari aurre hartzeaz, izan nahi duguna zehazteaz eta horretarako lanari ekiteaz.

Erosoagoa da niretzat orainaz gozatzea ordea. Eta baita etorkizunaz ere, hau orainaldira gerturatuz doan heinean. Ezinezkoa zait baina azkenaldian. 2057. urtea obsesiboki baitatorikit burura; hirurogeita zazpi urte beteki dudana urtea, hain zuzen.

Ordurako non egongo naizen, lana non egingo dudana, hilean zenbat kobratuko dudana eta buruan zenbat ile izango ditudan jakin beharrean naizela konturatu naiz. Urteak bizkor pasatzen baitira, eta hemendik gutxirako karrera amaitu, lanpostu finko bat bilatu, pisu bat erosi eta hipoteka bat ordaindu beharko baitut. Eta hau gutxiegi balitz, baita seme-alabak izan eta hauei jaten eman ere, zaharra naizenean norbaitek niri pixoihalak aldatzeko.

Aurretik etorkizun beltz bat dudala ohartu berri nahiz bada; eta krisi ekonomikoa eragin dutenak aberasten jarraitzea ahalbidetu besterik egiten ez duen sistema honen baitan, aukera gehiagoren ezean, erretiroa esperantza bakarra denaren ideia nagusitzen dela. Gero eta lan, diru eta esfortzu gehiago kostako zaigun erretiroa, gure eskubideak produktuen gisara salerosiak izatea onartzeagatik galduko duguna. Eta gaztetan Che Guevararen poster baten azpian lo egiten omen zuen baten eskutik gainera. Hau da marka hau...

**Taxido Arrizabalaga**

**Zorion-agurrak**



**Mikel**

Zorionak txapeldun zure bigarren urtebetetzean familia guztia- ren partetik.



**Ane Miren**

Eskua bete duzu! Txo- komarrubizko 5 muxu pottolo aitaxo, amatxo eta Haizearen partetik.



**Oier**

Zorionak eta muxu handi bat aita, amatxo, familia eta Txitxoren partetik.



**Mari eta Idoia**

Zorionak bikote eta kontuz ibili!!! Kantu eta parranda gehiegi ez egin gaur, urte bat gehiago duzue eta!!!!



**Aimar**

Zorionak Pirata! Ondo pasa bihar zure 6. urtebetetzean, aitaxoen eta zure arrebaren partetik.



**Jon**

Zorionak txapeldun eta 4 muxu erraldoi (eta 5, eta 6, eta...) amatxo eta aitaxoren partetik.



**Manex**

Zorionak gurasoak, Maddi eta aiton-amonen partetik. Ondo pasa eta muxu erraldoia!



**Asier**

Zorionak txapeldun! Ondo pasa etxeko en partetik.



**Nerea**

Zorionak maitia! bost muxu handi familiaren partetik



**Irati**

Zorionak neska handi zure urtebetetzean! Hiru muxu handi familiaren partetik.



**Roke**

Zorionak 'pottolo' Olatz, amatxo, aitaxo eta etxeko guztien partetik. 8 muxu handi!

**Jaiotzak**

Lucia Gonzalez Infante, urtarrilaren 28an  
Saioa Jañez Soarez, urtarrilaren 27an  
Ane Murillo Sagarna, urtarrilaren 21ean



**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Lasarten lokal bat alokatzen da. Interesaturik daudenak 615 735180 telefono zenbakira deitu dezakete.

• Garaje bat salgai edo errentan jartzen dut, kultur etxeko eremuko etxebizitzetan. Harremanetarako zenbakia, 610 961 369.

• Bi garaje alokatzen dira, bata 70 eurotara eta bestea 60 eurotara. Harremanetarako 671 605 727.

**Salerosketak**

• Mobilhome bat saltzen da OI- ten. Harremanetarako zenbakia, 626 057 485.

**Lan-eskaintzak**

• Klase partikularrak ematen ditut: Euskara, ingelera, gaztelera, matematika...Tel.: 693 601 222.

• Pertsona bat behar da arratsalde bi ta erdi urteko ume bat zaintzeko. Interesaturik dagoena jarri kontaktuan 687 230 051 telefono zenbakian eta galdetu Evagatik.

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Astelehena, 7**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 etzea  
Tel.: 943 361774

**Ostirala, 4**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Larunbata, 5**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Igandea, 6**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Asteartea, 8**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Asteazkena, 9**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Osteguna, 10**

Urbisondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Hiribusaren ordutegia Lanegunetan**



Antxisu	Zabaleta	Atsokabar	Cocheras	Antxisu	Zabaleta	Atsokabar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFako Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Langabeek beherapenak dituzte Udal zerbitzuetan

■ Urte hasieran jarri zen ekimena martxan ■ Aisiako zerbitzuetan %10eko beherapena dute langabeek

**L**asarte-Oriako langabeek %10eko beherapena dute aisiako Udal zerbitzuetan.

2010eko azaroaren 11eko udal batzarrean Udalaren 2011 urteko tasen barruan onartu zen ekimena da hau. Urte hasieran martxan jarri bazen ere, Lasarte-Oriako alkateak Jesus Zaballosek asteartean eman zuen honen berri prentsaurreko batean.

## Aisiako zerbitzuak

“Gazte txartelaren ideari jarraipena emanez, Lasarte-Oriako Udalak krisia pairatzen duten herritarrei aisiako zerbitzuak erabiltzen jarraitzeko aukera eman nahi die,” azaldu zuen alkateak.

Langabezian dauden herritarrek Udal Musika eskolan, Udal euskaltegian, jarduerak kulturaletan, kirol zerbitzuetan, Emakumeen Zentro Zibikoan eta Jalgune pertsona desgaituentzako aisiako klubean %10eko beherapena izan ahal dute.

## Baldintzak

Beharpena lortzeko baldintzak bi dira, Lasarte-Oriako erroldatua egotea eta langabezian egotea.

Gazte txartela egiteko, gazte bulegora joan eta 5 euro ordaindu behar dira txartela lortzeko. “Kasu honetan



Herritarrek aste honean beherapenen berri ematen duen diptikoa izango dute etxean.

ez da txartelik egingo, batetik langabezia egoera ez baita behin betikoa eta bestetik, bizi duten egoeran, ez diegularako diru sarrera bat eskatuko,” azaldu zuen Zaballosek.

Horregatik, beherapenaz baliatzeko, INEMen emandako txartela eguneratua edo Lanbiden emandakoa aurkeztu behar dute herritarrek NANarekin batera.

Gauzak honela, alkateak jakin arazi duenez, “urte hasieran jarri zen martxan eta herritar batzuk dagoeneko ekimen honetaz baliatu dira, kiroldegian esate baterako”.

Honen guztiaren berri, “egun hauetan zehar, Lasarte-Oriako etxeetan banatuko diren diptikoetan izango dute herritarrek,” aipatu zuen Zaballo alkateak. •

# Alkoholiko anonimoen 3. urteurrena

**L**asarte-Oriako Alkoholiko Anonimoen taldeak asteartean bere 3. urteurrena ospatu zuen Villa Mirentxun. Bertara taldeko kideez gain, herritar ugari eta Lasarte-Oriako eta andoaingo udal ordezkariak izan ziren.

## Hitzaldi eta esperientziak

Ospakizunari hasiera emateko Alberto Cortezek ardoari eskainitako olerkia entzun zen.

Ostean, Alvaro Iruin medikuak, besteak beste, alkoholikoak izateak gure gizartearen ekarri ditzakeen estigma, aurreiritzi eta bereizketari buruz hitz egin zuen eta hau ekiditeko hezkuntza beharrezkoa dela azpimarratu zuen.



Alvaro Iruin medikua urteurrenako ekitaldian eskaini zuen hitzaldiaren momentu batean.

Beltran familiako medikuak kide baten alkoholismoak familia bera ere “gaixotzera” eramaten duela aditzera eman zuen eta hori berresteko jarraian, Al Anon familia taldeko kide batek

bere esperientzia aurkeztu zuen.

Azkenik, Lasarte-Oriako taldeak kideen esperientziak kontuan izanik egin duen “Las 12 trampas” lana aurkeztu zuten. •

## EDITORIALA

### Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorra. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, ingurutzaren gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu.

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoak hobetuz eta zabalduz. Edozelako gizarte eta kultura modernoren geroan giltzarri da hedabideen zeregina. Printzipio eta helburuetan letra larritz aitortzen da garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez. Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundearen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez nahikoa, aurrean ditugun errokei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, gurean aldean handi eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango ditugu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratzen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiatu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, komplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilero soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarriz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzera gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

**Txintxarri aldizkaria eta euskarazko 75 hedabidetik gora.**



Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 5**

10:30ean, Ostadar - Touring (Infantil Txikiak, kopa) Michelinen.  
 12:00etan, Ostadar - Beti Ona (Partehartze infantilak) Michelinen.  
 13:30ean, Ostadar - Tolosa (Kadeteen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.  
 15:45ean, Ostadar - Amaikak Bat (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.  
 17:30ean, Texas Lasartearra - Beti Ona (I. Erregionala, kopa) Michelinen.

10:30ean, Urola - Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila, txapeldu-n fasea) Argixa, Zumarragan.  
 11:30ean, Amaikak Bat - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II, txapeldu-n fasea) Errotazar, Deban.  
 14:15ean, Usurbil - Ostadar (I. Jubenila, kopa) Harane, Usurbilen.  
 15:45ean, Anaitasuna - Ostadar (I. Erregionala, igoera fasea) San Juan, Azpeitian.  
 17:00etan, Mariño - Ostadar (Erregional Goren) Ugalde-Ventas, Irunen.

**Igandea 6**

10:30ean, Ostadar - Añorga (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.

10:00etan, Añorga - Ostadar (Alebinak, kopa) Rezola, Añorgan.  
 10:30ean, SANSE - Ostadar (I. Kadetea, kopa) Felix Garin, Donostian.

**ARETO-FUTBOLA**

**Ostirala 4**

21:00etan, ISU Leihoak - Idiazabal Pilarrena jatexea (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

19:45ean, Izarra - Izkiña  
 20:40ean, Naiban - Morrison's

**Larunbata 5**

18:00etan, Irish Pub Shepherd's Egin-tza - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Olaederra kiroldegia, Billabonan.

**HERRIKO TXAPELKETA**

10:00etan, Ayete - Ainhoa  
 11:00etan, Buenetxea - Indaux  
 12:00etan, Oriá kris. - Illun  
 13:00etan, Kalaberri Z - S.Andaluz  
 15:00etan, Epel - Ilargi  
 16:00etan, Obelix - ISU Leihoak

**Igandea 6**

**HERRIKO TXAPELKETA**  
 10:00etan, Katakra - Lekuona Mena  
 11:00etan, Viña del Mar - IOB H.K.

**PILOTA**

**Ostirala 4**

20:30ean, Gazteleku - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka III. kadetea) Arrate pilotalekua, Andoainen.

**Larunbata 5**

16:00etan, Intza - Alde Zaharra (Udaberri txapelketa, eskuz binaka II. kadetea) Michelingo pilotalekuan.

16:00etan, Añorga 3 - Intza (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz binaka infantilak) Añorgan.  
 17:00etan, Ilunpe - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. seniorra) Frontoi txiki, Azpeitian.

**ATLETISMOA**

**Larunbata 5**

10:30ean, Landaberriko DBHko taldeak Erkidegoko "Atletismoarekin ondo pasatzen" jardunaldian parte hartuko du, Anoetako belodromoan.  
 16:45ean, LOKEko atletik Gipuzkoako senior mailako txapelketan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan.

**Igandea 6**

10:45ean, LOKEko atletik Gipuzkoako senior mailako txapelketan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan.

**IGERIKETA**

**Larunbata 5**

10:30etan eta 17:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko 2. mailako infantil, junior eta absolutuek Gipuzkoako Neguko Saria jokatuko dute Zarautzen.

**Igandea 6**

10:00tan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko alebin eta infantilek Kutxa sari-ko Finalak jokatuko dituzte Legazpin,

**GIMNASTIKA**

**Larunbata 5**

17:00etan, LOKEko gimnastek eskolar-terko kadete A eta B maila, jubenil eta amateur mailako txapelketako lehenengo fasea dute, Uharkape pilotalekuan, Arrasaten.

**JUDOA**

**Larunbata 5**

Egun osoa, LOKEko Josu Olmos judokak kadete mailako Espainiako kopako jardunaldian parte hartuko du parte hartuko du, Madrilen.

**BOLA-JOKOA**

**Igandea 6**

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak Bikotekako txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko du, Añorgan.

**ESKOLA KIROLA**

**Larunbata 5**

09:30etik 10:45era, LH4 mailako gaztetxoentzat Errugby topaketa antolatuta da, kiroldegian.  
 10:45etik 12:00etara, LH3 mailako gaztetxoentzat Errugby topaketa antolatuta da, kiroldegian.

# Marka onak igeriketan

Kutxa Sariko finalerako sailkatu dira Buruntzaldea Igeriketa taldeko sei gaztetxo eta errelebo mistoa

Pasa den larunbatean, urtarrilaren 29an, Irunen Kutxa sariko kanporaketak ospatu ziren. Bertan Buruntzaldea Igeriketa taldeko alebin eta infantilek jardunaldi bikaina egin zuten, "denek beren markak hobetzea lortu zuten," adierazi digu Borja Apeztegia entrena-tzaileak.



Arg.: Buruntzaldea Igeriketa taldea

Kutxa sarian parte hartu zuten Buruntzaldea Igeriketa taldeko gaztetxoak.

**Kanporaketa**

Honetaz gain, horietako sei igerilarik hurrengo igandean Legazpiko igerilekuan ospatu-ko diren finaletan egoteko aukera lortu zuten.

A finaletarako sailkatu ziren gaztetxoak hauek dira: 50 tximeleta frogan Iñigo Ibarburu egongo da, kanporaketa marka onena egin osten; Itsaso Tolosa, 50 bizkar frogan lehiatuko da kanporaketako 3. marka onena lortu zuelako; Naiara Lizasok ere 3. marka onena egin zuten, baina 50 libre frogan eta Unai Buenok 50 bizkar frogan, 5. marka egin eta txartela eskuratu zuten.

B finaletan, aldiz, Garazi Alkorta egongo da 50 tximeleta frogan, kanporaketako 9. marka onena egin zuten eta;

Ainara Garcia ere 50 bular frogan lehiatuko da, kanporaketako 8. marka onena egin baitzuen.

Seikote honetako lauk, Iñigo Ibarburu, Unai Bueno, Itsaso Tolosa eta Garazi Alkorta gainera, infantil mailako 4x50 m. libre errelebo mistoa osatu eta A finalean lehiatzeko aukera lortu zuten kanporaketako 6. marka onena eginaz.

Gauzak honela, entrena-tzaileak domina batzuk ekartzeko aukera dutela aipatu digu.

**Finaletatik kanpo**

Igerilari hauetaz gain, entre-

natzailearen hitzetan, "finalean sartu ez baziren ere benetan aipatzekoak izan ziren ere beste igerilariek egindako markak, benetako hobekuntza nabarmena erakutsi baitzuten beren frogetan". Hauek Mikel Soto 50 bular proban eta 50 metro Libre proban Beñat Alkorta, Maialen Casado, Janire Bera-sarte eta Jone Vazquez dira.

**Neguko Saria**

Kutxa Sariko finaletz gain, Buruntzaldea Igeriketa taldea larunbatean 2. Mailako Gipuzkoako Neguko Sarian lehiatuko da Zarautzen. •



Beltzak Ostadar Jalai Errugby eskolako gaztetxoek ederki gozatu zuten Logroñon.

Arg.: Beltzak Ostadar Jalai taldea

## Errugbi eskola topaketaz topaketa

Beltzak Ostadar Jalai Errugbi eskolako gaztetxoek bi topaketa izan zituzten lehengo igandean, urtarrilaren 30ean. Alebin eta benjaminiek Logroñon egon zire eta infantilak. aldiz, Hernanin.

**Logroñon gozatzen**

Logroñoko Prado Viejo zelaian izan zuen leku topaketa eta bertara, Arrasate, Hernani, Zarautz, Bera-Bera, Atletico SS, Ordizia, Iruñeako La Unica, La Rioja, Fenix de

Aragon eta Ejea de Los Caballerosko taldeak bildu ziren.

"Herriko taldeko 25 bat jokalar eta haien gurasoak egin genuen bidaia Logroñora," azaldu digute eskolako arduradunek.

**Emaitzak ez garrantzia**

Alebinetako taldeak Zarauzko lau jokalariren laguntzaz bi partida irabazi eta bat galdu zuten eta benjaminiek, ordea, bi galdu eta bat irabazi.

Taldeko arduradunek adierazi dutenez, partidien emai-

tzak alde batera utzi eta garrantzitsuena, "beste herrietako gaztetxoekin duten zale-tasuna komunean jartzen Beltzak Ostadar Jalai Errugbi eskolako haur guztiak jardunaldi ederra bizi izan zutelara" da.

**Infantilak ere primeran**

Infantilek primerako lana egin zuten Hernanin. Bertan Zarauzko taldearekin bat egin ez, Ordizia eta Hernani Arrasate konbinatuaren aurka jokatu zen. •

Egunero

**Erakusketa**

MAITENA URRETABIZKAIAREN argazkiak ikusgai. Aukerata gehien gustatzen zaizun argazkia eta parte hartu zozketan. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Ostirala, 4

**Kantaldia**

SANTA AGEDA BEZPERA dela eta, Erketzeko lagunak baserrieta-rra joko dute kantatzera. Erketz Taldearen lokal ingurutik aterako dira 18:00etan, EUSKARAZ.

**Kantaldia**

SANTA AGEDA BEZPERA dela eta, Zabaleta auzoko bizilagunak kantari arituko dira auzoan zehar. Irteera Antonio plazatik izango da, 18:30ean, EUSKARAZ.

**Kantaldia**

SANTA AGEDA BEZPERAREN egunez, ohiturari jarraituz, Lasarte-Oriako bertso-eskola, Udal Musika Eskola eta Xumela abesbatza kantari arituko dira herriko kaleetan zehar. Jalgi kafe-antzekitik aterako dira. Jalgi kafe-antzekian, 19:30ean, EUSKARAZ.



Teknologiak baliatzea arazoak konpontzeko

INFORMATICIDIO, Nasdrovia Untzerki Taldearen eskutik eta Oscar Terolek zuzendutako umorezko saioa. Udalak eta Xpression taldeak duten hitzarmenaren barruan. Mota eta maila guztietako jendeak bere arazoak konpontzeko bide bat ikusten du Interneten. Inguruak, barruko konplexuek, gaizki ulertuek eta halabeharrak, zentzugabe-ko eta ironiaz betetako egoera asko sortuko dituzte.

GAUR, OSTIRALA 4  
KULTURETXEKO KAFETEGIAN  
20:00ETAN, DOAN



Osteguna, 10

**Zinea**

EL SECRETO DE SUS OJOS film argentinarra eskainiko du Okendo Zinema Taldeak. Juan Jose Campanellak zuzendu da filma eta protagonistak, Ricardo Darin eta Soledad Villamil aktoreak dira, besteak beste. Sarrera 4,20 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ.



Ostirala, 11

**Bertso-saioa**

BERTSO-DESAFIOA jokatu dute LASARTE-ORIAKO bertso-eskolak eta GABIRIKOAK. Herriko bertso-eskolatik Andoni Otamendi, Ane Labaka eta Axier Azpiroz arituko dira eta Gabiritik berriz Endika Igartzabal, Gorka Maiz eta Mikel Asurabarrena. Jalgi kafe-antzekian, 22:30ean, EUSKARAZ.

**Oharrak**

**Galdutako erlojua**

Swatch markako erloju beltz bat galdu zait Lasarte-Oriako kiroledegia inguruan.

Jaso duen pertsonari bueltatzea eskertuko nioke, opari bat zen eta. Harremanetarako telefono zenbakia: 647 995 050, (mikelgnieto@terra.es), Mikel. Aldez aurretik eskerririk asko.

**Galdutako gauzak**

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pultsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neskaren eskumuturra eta zilarrezko pultsera bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden persona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia

Astehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

Esazu irrati programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

**Eskutitzak**

**Ke txarretan adituak hitz egin du**

Alkorta andrea, behingoz badirudi zerbaitetan bat gatozela. Nik ere gomendatzen dut ikustea nire aurkezpena hautagai bezala, eta baita nire blogean parte hartzea www.jesuszaballos.es. Topaketa bikaina izan zen ehunka herritarrekin. Sentitzen dut zuretzako aitzakitzat balio izana udal intereseko gaiak lantzeko gobernu taldearekin ezbiltzeko. Azken 8 urteotan eskaini dizkiguzun hitz bikainak errepasatzera gonbidatzen dizut.

Zure txantxa jarraituz, nik

behintzat PROIEKTU BAT dut. Bat zero baino gehiago da, izan ere, hori da lasarte-oriatarrei egin dizkiezuen proposamenen kopurua. Baina garrantzitsuena da nik, eta ordezkatzen dudana alderdiak, HIRI-PROIEKTU bat dugula Lasarte-Oriarentzat. Elkartasun, aurrerapen, garapen ekonomiko eta gizarte-justizia proiektu bat. Batzen duen proiektu bat, kentzen ez duena.

Proposamenak asko ditugu. Gure udalerrira gidatu dugunon esperientzia da, bere jendea ondo ezagutzen dugunon, eta gu ondo ezagutzen gaituzte baita ere, izan ere, bat gehiago gara

beraien artean, eta ez Aitorren semeak.

HHI zentro berria, Gaztelekua (beti kontra agertu zarena), padel pista eta rokdromo, Jaizkibel plaza, hiri-autobusa, Okendoko urbanizazio berria, 303 BOE martxan jartzea, Hiri-Ordeantza, gestioak beste administrazioekin gastua murrizteko (haurtzaindegia, jangela edo zaharren egoitza)... eta ez dut jarraitzen nahikoa delako hemeroteka begiritzea alkate bezala daramadan urte honetan aurrera atera titudan proposamenak zintzuk izan diren jakiteko. Ez ditut egiaztagiririk gehiago behar: jendeak eza-

gutzen nau pixkanaka. Pentsa zein lasai nagoen egindako lanarekin zuk edo zure alderdiak Lasarte-Oriaren alde egindakoan pentsatzera gonbidatzen zaitudala, ez azken urtean bakarrik, baizik eta agintaldiko lau urteetan. Zoritxarrez, ezin duzu parekatu.

Alkorta andrea, ez zaitzen nahastu, Lasarte-Oriako jendearenganako errespetu handiegia dut tontoak direla pentsatzeko. Badirudi, ordea, zuk horrela pentsatzen duzula.

Jesus Zaballos,  
Lasarte-Oriako alkatea

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo ezuztean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Ramon Uribe-Etxeberria Zumaburuko parroko ohia

# “Herritarren berotasuna nabari dut”

■ Otsailaren 2an Ramon Uribe-Etxeberria parrokoa herrira iritsi zenetik 25 urte bete ziren  
 ■ Leintz-Gatzaga izan zuen lehenengo apaiz toki, Eibar bigarrena eta azkenekoa Lasarte-Oria

36 urte igaro dira Arantzazuko Amaren parrokia sortu zenetik. 1975ean auzokideen laguntzaz etxabe batean eraiki zen eta sei urte beranduago gaur egun ezagutzen dugun parrokia sortu zen. Bost urte geroxeago etorri zen herrira Ramon Uribe-Etxeberria parroko eskortzarra. 83 urte bete zituen hilaren 2an, eta Lasarte-Orian 25 urte ere bai. Bere hurbiltasunak eta eliza egiteko moduak aski ezaguna egin dute Don Ramon.

ITXASO MORENO

**R**amon Uribe-Etxeberria hasiera hasieratik eskuratu zuen eliztarren eta eliztarrak ez diren maitasuna. Bere hurbiltasun, berotasun eta meza emateko modu berezia bere parrokiako zeinu eta ikur bilakatu ziren. Bera ere kontent ibili da herrian, eta horren isla da erretiratu ostean bere jaioterrira bueltatu beharrean Lasarte-Orian geratzeko hartutako erabakia. Berarekin bildu gara bere bizitzari errepaso txiki bat egiteko.

## Noiz sartu zinen apaiz?

1942 sartu nintzen Bergarako seminarioan, 14 urte nituela eta 12 urtez egon nintzen bertan. Ondoren Gasteizen zortzi urte egon nintzen eta gero guk inauguratu genuen Donostiako seminarioa. 1954an botoak hartu eta apaiz hasi nintzen.

## Nolatan apaiz? Bokazioa?

Gure garaian bokazioa zer zen ez genekien. Eskola 14 urterekin bukatzen zen eta eskola profesionala hartu edo lanean hasiateko zegoen aukera. Eskolako garaietan bi lagunekin ibiltzen nintzen, auzokoak eta eurak apaiz joan behar zirela esan zidaten. Herriko apaizari galdetu eta joan ziren, zer zen ere jakin gabe. Nik ere erabaki hori hartu nuen, baina ez zitzaidan aingerurik azaldu. Nik ez nuen ezer espezialik sentitu, nire lagunak joan ziren eta ni ere bai.

## Helbururik ba al zenuen?

Helburuak gero etortzen dira, eta nire bizitza osoan nagusiena haurrei benetako mezua helaraztea izan da. Umeak nola hazten dira horrelakoa izango da herria; horregatik hezitzaileek garrantzia handia dute niretzako. Umeei mezu garbia eta baloreak transmititzea izan dut helburu nire bizitzan zehar.

Gauzak erdibanatzen ikasi behar dute umek, pertsona izateak horretan bait datza. Gizartean bizitzen erakutsi behar zaie, ditugun gauza onak guztiekin partekatzen.

## Urte ugari egon zara umeekin, eboluziorik eman al da?

Asko aldatu da gizartea. Egungo umek jaunartzea egin eta eliza mundua uzten dute. Fedea gutxitu egin da. Egia da fedeari jaten ematen ez bazaio poliki-poliki galdetzen joaten dela, eta hori gertatzen ari da. Egungo pentsamoldean momentua bizitzea da nagusi, ondoren hilko garelako. Jaungoikoa eta horren ingurukoei ez zaie garrantzirik ematen. Gurasoek ez dutenez horretan sinesten, umeek ere ez.

## Zergatik gertatu da hau?

Kontseilua eman baino lehen kristautasuna oso ezberdina zen, dena sakramentua, aitormena eta konfesioa. Dena bekaturia zen, sufrimendua. Norke sinistu behar zuen? Horrela ulertu daiteke fedea galtzea. Berriketarekin kristautasuna ulertzeko beste era iritsi zen.

Kristau izatea Jesusen bidea jarraitzea da, bere sentipenak eduki, bere lana eta bere aukeraketak ulertzea. Eta guzti hori alaitasuna eta zoriontasunarekin sentitzea.

Gaur egun ez dakite zein den Jesus eta ni hori erakutsen saiatu naiz umei.

## 1954an hartu zenituen botoak, non ibili zara apaiz?

Nire lehenengo apaiz tokiak Gatzagan izan nuen eta bertan 15 urte egon nintzen. Irailan iritsi eta abenduan eliza erre zen, garai gogorak izan ziren. Bertan pasatako urteak eliza konpontzen eta ordaintzen igaro nuen. Ondoren Eibarrera egin nuen, San Jose Obrero auzora. 15 urtez egon nintzen han. Urte politik izan



2004an omenaldia egin zioten Ramon Uribe-Etxeberriari. Erretiratu zen urtean agur beroa eskaini zion herriak.

ziren. Garai horretan umek sei urterekin hasten ziren ikastolan, baina txikienezako eskola txiki bat ireki genuen eta oso aberasgarria izan zen.

Azkenik Lasarte-Oriara iritsi nintzen, lehenengo egunetik herriaren parte sentituz.

## 25 urte pasa dira iritsi zinenetik, nolakoa izan zen hasiera?

Ez nuen Lasarte-Oria ezagutzen, nire arreba bat hemen bizi zen arren. Nire izendapea otsailean izan zen, arraroa, normalean abuztuan edota irailean izaten baitira.

Bartolome Auzmendi zegoen apaiz Zumaburuko elizan nire aurretik eta jendea pozik zegoen berarekin. Baina gogorak ni jarri ninduen. Arrebak esan zidan jendea ez zegoela oso konforme aldaketarekin, eta nik ulertzen nien. Baina herrira iritsi nintzenean zerbitzura nentorrela esan eta jendeak hasieratik euren berotasuna eta maitasuna eskaini zidan.

Nire etxeko atekak 24 orduz egon dira irekiak beti, nire bizitza laguntzera bideratu dut, gainera guztiei berdina eskainiz.

## Esperientzia ona bezar herrian bizi izan duzuna?

Oso ona, harreman onak izan eta ditut herrian. Ume asko ikusi ditut heltzen. Emakumeak elizan ezagutu nituen, eta gizonezkoak tabernan, hasieratik ondo hartu ninduten.

## Zurekiko maitasuna argi geratu zen 2004ko omenaldian.

Oraindik ez dut ulertzen zergatik egin zidaten. Ez dut ezer berezirik egin herrian, nire betebeharrak bakarrik. Hasieran omenaldiaren kontua ez zitzaidan gustatu, baina gero elizarentzako ona zela pentsatu eta ondo hartu nuen. Jendearen berotasunak, eta herritarren konformatatea ikusteak, poztu ninduen.

## Herriaz maitemindu zara?

Oso gustura nago herrian. Erretiratu nintzenean nire anaiak jaioterrira bueltatzeko gonbitea egin zidan, baina ezetz esan nion, Lasarte-Orian konforme nago. Hemen urte onak pasa ditut, jendearekin harreman bereziak eratu ditut. Kristautasuna maitatzen eta maitatua izatean datza, eta herrian lortu dut. Pozgarria izan da hemen gelditzea.

## Loreak ekarri zenituen...

Herrira iristean mezatan lorerik ez zegoela konturatu nintzen eta baratza jartzea erabaki nuen, nik neuk landatuz eta zainduz. Gaur egun ere hor ibiltzen naiz baratzean gora eta behera. Baratzak bizirik mantentzen laguntzen nau. Bertan lasai, libre nago, burua arintzen dit, forman mantentzen naiz... osasun ona eman dit.

## Mezak erabat alde batera utzi al dituzu?

Karmengo Kaperan igandero 11:30ean meza ematen dut, baita Zumaburun 19:30ean dagoen meza astean hirutan. Ordezko lanak ere egiten ditut. Aktibo mantendu nahi dut, horregatik parrokiako taldeekin ere lan egiten dut.

## Mezak emateko moldea aldatu zenuen...

Sermoiak, bihotzetik ateratzen edo sentitzen nuenaren arabera transmititzen nituen, hurbileko mezak nahi nituen. Hurbileko pertsona naiz eta hori sentiarazi nahi nuen.

Apaiza izan naiz baina laguna ere bai. Herriari entzun behar zaio elkartzarako. •